



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2020/06/22

Arabako Errioxaren egungo egoera

Ekainaren 4aren, osteguna, ondorengo egunetan, tenperaturak nabarmen egin zuen behera; egun gehienetan tenperatura maximoak ez dira 20°tik igo, brisa eta haize leunak izan dira, eta ekaitz fenomenoek tarteka euria bota dute, ez gehiegi. Hilaren 16an ordea, ekaitz gogor batek 20 litro/m²-ko euriteak utzi zituen, eta zenbait lekutan harri jasa pixka bat egin zuen.

Gertakari meteorologiko horrek mahatsaren errendimenduan eta kalitatean izan ditzakeen ondorioei dagokienez, bereziki ekaitzak eragin handiena izan zuen herrietan, Navaridasen, Eskuernagan eta Bastidan, ordena horretan, uztailaren erdialdera arte itxaron beharko dugu balorazioak egiteko. Landaretza berreskuratzen denean, mahatsondo bakoitzeko bideragarriak diren mahats mordo kopurua, eta mordo bakoitzeko ale kopurua zenbatetsi ahal izango dugu, eta, horrela, behin betiko datuak lortu.

Ekainaren 19tik aurrera, tenperaturak hobera egin du, prezipitaziorik gabe, brisa arinekin eta garaiko erregistroekin. Alderdi horiek guztiak positiboak dira mahastiaren ziklo normala garatzeko.

Une honetan mahastia mamitzen amaitzen ari da (J egoera) zona garaienetan eta mendebaldeko zonako lurzati batzuetan (Bastida), eta ilarraren tamainako alea du ekialderago dagoen eremuan (Oion, Moreda, Lantziegoko hegoaldea...) eta lurzati goiztiarretan. Egoera fenologiko horiek Arabako Errioxan ohikoa dena baino 10-15 eguneko aurrerapena adierazten dute.

Joan den ekainaren 8ko egoeraren txostenean adierazi genuen mildiuk gogor mehatxatzen zuela labore eskualde osoan. Gaur egun, zorionez, tenperatura baxu eta eurite ertaineko baldintza onak direla eta, eta tratamenduak aldizka egin dituzten mahastizainen ahaleginagatik, mildiuk bere garapena gelditu du, eta lurzati gehienetan kontrolpean dago. Hala ere, adierazi behar da kaltetuagoa dagoen lurzatiren batean mahats galera nekez berreskura daitekeela.

Era berean, oidioaren aurkako tratamenduak egin dira, hezetasun eta tenperatura baldintzak kontuan hartuta, berehala ematen baititu arazoak. Izan ere, azken egunotan fokuek egon dira lurzati isolatuetan, eta, oro har, ondo kontrolatzen ari dira.

Uztari dagokionez, mahatsaren lagina (fruitua ia mamituta dago), mildiua kaltetutako lurzatiak edo harri jasa jasan zutenak izan ezik, Kontseilu Arautzaileak kanpaina honetarako ezarritako gehieneko etekinen gainetik dago (5.850 kg/ha mahats beltz 8.100 kg/ha mahats zuri); beraz, kasu askotan, mordoak mehaztu egin beharko dira.

Arabako Txakolinaren egungo egoera

Arabako Txakolinaren eremuan, Arabako Errioxarako adierazi den bezala, tenperaturak nabarmen egin zuen behera ekainaren 4tik aurrera, eta prezipitazioak, euri moduan kasu honetan, neurrizkoak izan dira, gertakari meteorologiko negatiborik gabe. Era berean, hilaren 19tik tenperaturak gora egin du, egun eguzkitsuekin eta hego haizearekin.

Mahatsa mamitu egin da (J egoera) eta oso modu onargarrian egin du. Barietate berantiarrean (hondarribi zuri), ugariena dena, mamitze prozesuan izandako hotzaren eta euriaren ondorioz, kasuren batean lerradurak gertatu dira. Arabako Txakolinaren eremuan egoera fenologikoa dagoen aurrerapena urte arrunt batetik 7-10 egun ingurukoa da.

Mamitzeari buruz adierazitakoa gorabehera, mahats lagina egokia dela esan daiteke. Gorabehera larririk ez badago, ohiko errendimenduetara iritsi ahal izango da.

Osasunari dagokionez, Aiarako haranean, oro har, mahastiak egoera onean daude. Ohiko laborantza lanak eta tratamendu fitosanitarioak egiten ari dira, eta, aurten, arreta berezia jarri da oidioan.

Guardia, 2020ko ekainaren 22a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
NEKAZARITZA SAILA**